

BECetik Iruñeko Nafarroa Arenara egingo du jauzi Txapelketa Nagusiak

Pandemiaren eraginez aurten ezinezkoa izan den norgehiagoka 2022ko irailaren 24an hasiko da Getxon, eta abenduaren 18an jokatu da finala

N. AZURMENDI

DONOSTIA. Plaza poliki-poliki martxa eta erritmoa berreskuratzan ari den honetan, bertso-laritzaren plaza handienari ere tokatu zaio lehengoratzan hasia. Euskal Herriko Bertsosale Elkarteak atzo adierazi zuen Bertsolari Txapelketa Nagusiaren makina berriro abian jartzeko asmoa duela, 2021erako aurreikusita zegoen eta pandemiak bertan behera uztera behartu duen hitzordua 2022ko udazkenean gauzatuko dela aurreratuz.

Zehazki, datorren urteko irailaren 24an abiatuko da Getxon Txapelketa Nagusiaren 18. edizioa, eta abenduaren 18an jokatu da finala Iruñean. Eszenatoki aldaketa da hain zuzen igarpenak ekarri duen nobedade nagusia, 2005. urteaz geroztik Barakaldoko Bilbao Exhibition Center-ekin etxekotuta baitzegoen Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Donostian 1935an hasitako egonaldi luzeari, Belodromoari eta bertan gero eta nabarmenagoak ziren mugei agur esanda, BEC inauguratu berrian hartu zuen ostatu Txapelketa Nagusiaren finalak orain dela 16 urte. Irisme-

naren eta hedapenaren aldetik asko eman dio azken lau edizioetan ia 15.000 lagun biltzea ahalbidetzen duen areto handiak.

Sadarren kokatuta dagoen Nafarroa Arena erabilera anitzeko pabiloia ere berri-berri hartuko dute bertsolariek, 2018an inauguratu baitzen. Edukierari dagokionez BEC baino txikixeagoa izan arren, 12.000 bat entzule har ditzake.

Barakaldotik Iruñera jauzi egitearen arrazoiak emateko orduan, Txapelketaren izaera ibiltaria aipatu du Euskal Herriko Bertsosale Elkarteak Lehendakaritza Taldeko kide Gontzal Agotek. Haren hitzetan, «berez herriz herriz ibiltzen da Euskal Herri osoan barrena, eta alde horretatik bertso-laritzaren isla ere bada. Finalari dagokionez, garai batean Donostian egiten zen, azken urteetan BECen, eta orain Iruñeari ailegatu zaio txanda».

Erakundeen interesa

Zuzendaritza taldearen izenean mintzatu den Agoteren ustez, finalaren egoitza aldatzeak «bertako bertsolaritza mugimendua hauspotzeko» balioko du. Izan ere, Bertsolaritza Txapelketa Nagusiak arrasto nabarmena uzten du joaten den tokietan.

Bertsosale Elkarteak erabakiaren berri emateko zabaldu zuen oharrean irakur daitekeen bezala, «zaletasuna areagotzen da, bertso-eskolentzat bizigarri dira eta ilusio piztaile da tokian tokiko bertsogintzan». Kasu hone-



BEC, bertsozale lepo 2017ko finalean. ARIZMENDI

tan, «finala Iruñean izateak Iruñerrian eragitea du asmoetako bat» eta, Nafarroako Bertsosale Elkarteak 1984. urtetik aurrera egin duen lan handia eskertuz eta jarraituz.

Agotek nabarmendu du, bestalde, lehen aldiz duela Nafarroak «horrelako egun osoko ekitaldi bat hartu ahal izateko azpiegitu-

ra egokia», eta horrek ere eragin duela erabakian. Beste garai batzuetan ez bezala, gainera, «bertako erakundeen aldetik bada interesa finala bertan izateko» eta «elkarlana ona da Nafarroako Gobernuarekin». Ez dute argitu nola egingo den Getxotik Iruñerako bidea, baina pentsatzekoa da aurreko edizioetako ereduari eutsi-

AZKEN TXAPELKETAK

2005

Data: Urriak 9-Abenduak 18.
Saioak: 12.
Bertsolariak: 38.
Finala: Bilbao Exhibition Center.
Txapelduna: Andoni Egaña.

2009

Data: Urriak 3-Abenduak 13.
Saioak: 14.
Bertsolariak: 44.
Finala: Bilbao Exhibition Center.
Txapelduna: Maialen Lujanbio.

2013

Data: Irailak 29-Abenduak 13.
Saioak: 14.
Bertsolariak: 44.
Finala: Bilbao Exhibition Center.
Txapelduna: Amets Arzallus.

2017

Data: Irailak 23-Abenduak 17.
Saioak: 14.
Bertsolariak: 43.
Finala: Bilbao Exhibition Center.
Txapelduna: Maialen Lujanbio.

ko diotela, final-laurdenetako fasearekin abiatuta.

Txapelketa Nagusiaren atarikoak diren lurraldeetako zikloa, berriz, ixter da, amaitzeaz baitira pandemiak atzeratutakoak. Ipar Euskal Herriko Xilabaren finala azaroaren 13an jokatu da, Nafarroako hilean 28an eta Bizkaiakoa abenduaren 18an.